

GUZURMAIKO



Plazaren berritzea

Eraberritze lanak
dirulaguntzak
baldintzatuta



Interesdun telefonoak

| | | |
|-------------------------|--------------|------------------------|
| Otxandioko Udala | 945 45 00 20 | Ayto. de Otxandio |
| Medikuan zita hartzeko | 945 45 50 17 | Concertar cita |
| Herri Eskola | 945 45 01 01 | Colegio Público |
| Haurreskola | 945 45 09 97 | Haurreskola |
| Liburutegia | 945 45 05 17 | Biblioteca |
| Nagusien egoitza | 945 46 14 03 | Residencia de ancianos |
| Larrialdiak | 112 | Urgencias |
| Durangoko ertzain etxea | 94 466 93 00 | Comisaría Ertzaintza |

| | | |
|--|-------------|---|
| Emakumeenganako indarkeria sexistaren informazio zerbitzua | 900 840 111 | Servicio de información a la víctima de violencia sexista |
|--|-------------|---|

Autobusak/Autobuses

| | |
|--------------------------|--------------|
| Bizkaibus (Bezeroentzat) | 902 22 22 65 |
| La Unión | 945 25 84 00 |

Ordutegiak

- Udaletxeko bulegoa
Astelehenetik ostiralera 8:00-15:00
- Gizarte laguntzailea / Asistente Social
Azteazkena 8:30-14:30 (ordua eskatzeko deitu aldez aurretik)
- Arkitektoa / Arquitecto
Ostegunetan (ordua eskatzeko udaletxera deitu aldez aurretik)
- Liburutegia/ Biblioteca
Asteartetik ostiralera 16:30-20:30
Larunbata 10:00 - 13:00

Helbide elektronikoak

alkatetza@otxandio.net
idazkaritza.otxandio@bizkaia.org
administrazioa.otxandio@bizkaia.org
arkitekto.otxandio@bizkaia.org

ZUEN IRITZIA PLAZARATZEKO HURRENGO HELBIDEETARA
JO DEZAKEZUE

E-mailez: idazkaritza.otxandio@bizkaia.org
Posta arruntaz: Plaza Nagusia, 1
48210 Otxandio

Kontzejupeko buzoia

GUZURMAIKO



Argitaratzailea: Otxandioko Udala
Egilea: Otxandioko Udala / Arteman komunikazioa
Argazkiak: Arteman komunikazioa / Josetxo Aranzabal
Ale kopurua: 700
Lege gordailua: SS-1749-2010



Otxandioko Udala
Plaza Nagusia, 1
48210 Otxandio
Tf: 945 450020
945 450503
Fax: 945 450362
www.otxandio.net



AURKIBIDEA

| | |
|---------------------------|-------|
| <i>Editoriala</i> | 3 |
| <i>Plazaren berritzea</i> | 4-5 |
| <i>Herri-ola</i> | |
| <i>Gogoeta-prozezua</i> | 6-7 |
| <i>Ura</i> | 7 |
| <i>Energia</i> | 8 |
| <i>Udala-Batzordeak</i> | |
| <i>Hirigintza</i> | 9 |
| <i>Ogasuna</i> | 10-11 |
| <i>Zerbitzuak</i> | 12 |
| <i>Giza eskubideak</i> | 13 |
| <i>Euskara</i> | 14 |
| <i>Kultura</i> | 15 |
| <i>Albiste laburrak</i> | 16 |



UDAL GOBERNU TALDEA

Garai bereziak

Garai bereziak bizi ditugu. Geroz eta onartuagoa da honako hau ez dela ekonomiaren ohiko krisi arrunt bat, hori baino konplexuagoa dela, krisi-hari ugariaren batura dela gaurko egoera ezaugarritzen duena: krisi ekologikoa, energetikoa, bioaniztasunarena, politikoa, etb. Edozein kasutan, badirudi, eta guztiok ere kontzientzia hartzen hasita gaude, krisi aurreko oparotasun garaiak ez direla berriz bueltan etorriko.

Krisi ekonomikoak ezinbestean esangura negatiboa du: atzeraldia, lanpostuen galera, babes sozialaren ahultzea, etb. Jakina denez zuzenean eta oso modu negatiboan baldintzatzen ditu jendartearen zati handi baten oinarritzko bizi baldintzak. Krisia zerk sortu duen, erantzunkizunak non dauden (eta non ez) eta krisitik ateratzeko gauzatzen diren politikak zergatik diren halakoak eta ez bestelakoak mahai gainean jarri beharreko eztabaida funtsezkoa da, ekonomiari dago-kionez, tamaina honetako gertaerak ez baitira berez etortzen. Ez gara horretan gehiago luzatuko, ordea, espazio mugatua den berri-paper honetan udal honi bertatik bertara begiratzea baitagokio gehien bat.

Orain inoiz baino gehiago, Otxandioren garapen sozioekonomikoari begirako jarrera proaktiboa hartzea dagokigu.

Krisia aldaketa garaia da batik bat. Aldaketa garaian gaude, beraz, eta oso sakonak diren aldaketak gertatuko dira XXI. mende honetan. Adibide soil bat: duela hamarkada bat sinetsita geunden gas propa-noaren etorrerak bermatuko zuela Otxandioren etorkizun energetikoa. Gaur gasaren prezioa jasangaitza da herritar askorentzat, eta alternatibak bilatzen has-tea agendan daukagun gai garrantzitsueta-

ko bat. Beste adibide bat: babes sozialaren galerak eta gizarte zerbitzuen gainbeherak pobrezia errealitate konplexuak sortu dituzte eta orain arteko baliabide eta prozedurak ez dira aski errealitate horiei behar bezala erantzuteko.

Salaketa eta erresistentzia lanaz harata-go, eta horrekin batera, orain inoiz baino gehiago, Otxandioren garapen sozioekonomikoari begirako jarrera proaktiboa hartzea dagokigu. Krisi garaietan, aldaketa garaie-tan, egin daitekeen gauzarik txarrena geldirik egotea baita, eguzkia ateratzeko zain gelditzea. Zentzu horretan, enplegua sortzeari begirako eta baita egun dagoena babesteari begirako estrategiak behar ditugu, beti ere garapen orekatu eta iraunkorraren parame-troetan arituz.

Estrategia zuzenak diseinatzea bezain garrantzitsua da estrategia horien garape-na ziurtatuko duten baliabideak aktibatzea. Udalak, bere ohiko baliabideekin, saiakera desberdinak egin izan ditu azken urteetan: turismo planaren idazketa, eskualde maila-ko enplegu plan desberdinetan parte hartzea, Gorbeialderen bitartez turismoa eta komer-tzioa sustatzeko proposamenen lanketa, etb. Ez da nahikoa ordea. Hauxe da urte luze-tako esperientziaren ondorioa: ez daukagu lan honi begirako baliabide teknikorik eta ordezkari politikook ez gara gaiak duen kon-plexutasunari ganoraz heltzera ailegatzten. Datozen asteetan aspalditik lantzen gabil-tzan proposamen baten gaineko eztabaida abiatuko du Udalak: Garapen teknikari ba-ten kontratazioa.

Besarkada bat herritik kanpo daudenei eta urte berri on!

PLAZAREN BERRITZEA

DIRULAGUNTZAK LORTUZ GERO, PLAZA NAGUSIA BERRITZUKO DA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ZEIN EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-LAGUNTZA DEIALDI GARRANTZITSUETARA AURKEZTUKO DU PLAZA ERABERRITZEKO PROIEKTUA



Otxandioko Udal arkitektoak idatzi duen eta herriko Plaza Nagusia eraberritzea helburu duen proiektu hau, printzipioz, hiru fasetan garatuko litzateke. Lehenengo fase batean, proiektua idaztearekin batera, Pasealeku zein Vulkano inguruak berriztuko lirateke. Beste batzuen artean, erabat hondatuta dagoen lurzoru guztia erreparatzea, Pasealekurainoko bidea oztopatzen duten harrizko bankuak lekuz aldatzea, zein iturritik gertu dauden zuhaitzak kentzea jasotzen da. Lan horiek guztiak bukatzean, Frontoiari eragiten dion bigarren faseari eta Plazari berari eragiten dion hirugarren faseari ekingo litzazieke. Besteak beste, bigarren fasean, Frontoiko egungo lurzorua antzeko

beste harri-losa batzuez ordezkatzeko asmoa dago. Azken faserako, Plazaren lurzorua eta argiztapena berritzea besterik ez litzateke geratuko. Aipatutako hiru fase horietan, Iñaki Pereda arkeologo eta historialariaren zuzendaritzapean, arkeologia lanak egitea aurreikusten da.

Proiektua osotasunean garatzea, hau da, fase guztiak aurrera eramatea, jasoko diren diru-laguntzei baldintzatura egongo da. Printzipioz, egoera txarrean aurkitzen den eta lehenengo fasean jasotzen den horri guztiari ekingo zaio. Lehenengo fase honek 587.713,93 euroko kostua izango duela aurreikusita da. Aurreikusitako kostu horretatik, 400.000 euroko gastuari Bizkaiko Foru

Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean aurre egingo lioketen bitartean, Otxandioko Udalak 187.713,93 euroko gastuari egin beharko lioke aurre. Bestera esanda, proiektuaren %68 diru-laguntzen bitartez ordainduko litzateke eta gainontzeko %32 Udalak ordaindu beharko luke.





Plaza Nagusia eraberritzea helburu duen proiektu hau, printzipioz, hiru fasetan garatuko litzateke.

Parte-hartze prozesua

Urtero-urtero ospatzen diren Europako Ondarearen Jardu-naldien baitan, Otxandioko Plaza balioan jarri eta honen izaera ezagutzeko aukera emanaz, Iñaki Uriarte arkitektoaren eta Alberto Santana historialariaren hitzaldi bana antolatu ziren.

Hauek emandako irizpideak kontuan izanik idatzi den proiektuaren aurkezpen bat ere burutu zuen udal arkitektoak. Bertaratutako herritarrei proiektuan jasotzen diren aldaketen berri eman eta aldaketa horiek zein kriteriorekin egin diren azaldu zitzairen.

Era berean, aipatu, proiektuaren ganean herritarrek zuten iritzia jasotzeko helburuarekin, Hirigintza Batzordeak erakusketa antolatu zuela azaroan zehar Bolalekuan. Orain, bertaratutako herritarren iritzi edota proposamenekin azken proiektua idazteari ekingo zaio. Behin horiek denak jasota, Hirigintza Batzordeak behin betiko proiektua herritarren eskura jarriko du.

**CAMBIOS RESEÑABLES****Renovación del firme:**

El suelo de la plaza se está deteriorando ostensiblemente: tanto el suelo del alrededor de los árboles, como las losas de la plaza y el frontón están cada vez peor. Se propone cambiar todo el firme, uniformizando toda la plaza con un acabado similar a los alrededores del frontón. Es decir, se propone renovar toda la superficie de la plaza utilizando arenisca dura. De la misma forma, creyendo que la pavimentación que rodea la fuente no es acorde a la importancia que tiene el monumento, se propone volver a dejarla como era en otros tiempos, adornando sus alrededores mediante grandes losas de piedra.

Cambiar de sitio los bancos:

Los bancos de piedra son muy útiles, pero dividen en dos la utilización de la plaza. Se propone cambiar de ubicación tres de estos bancos, para facilitar el paso de un lado a otro de la plaza y para dar servicio a ambos lados del paseo arbolado.

Quitar y poner árboles:

El Pasealeku no es muy visible desde muchos puntos de la plaza. Tal vez, el hecho de que esté algo "escondido" sea una de las razones por las que no se utiliza demasiado. Se propone potenciar su visibilidad y su accesibilidad, quitando para ello dos árboles. Pero para reforzar las hileras que crean los árboles se propone plantar uno nuevo. De la misma forma, sabiendo que las raíces de los dos árboles más cercanos a la fuente están levantando el suelo y creando perjuicios a la fuente de Vulcano, se propone eliminar de raíz estos árboles.

Poner más farolas:

Los alrededores del frontón y del Pasealeku quedan muy oscurecidos de noche. Se propone instalar cinco farolas nuevas, remarcando las hileras de árboles y bancos.

Quitar algunas verjas de hierro y completar la escalera del Pasealeku:

El Pasealeku se utiliza menos de lo que podría utilizarse. Para favorecer la utilización de esta singular edificación se propone eliminar algunas de las verjas de hierro que cierran su acceso. Además de lo comentado anteriormente, respondiendo a la monumentalidad del Pasealeku y para facilitar su utilización, se propone prolongar las escaleras a lo largo de todo el edificio.

Quitar cuadro eléctrico:

El cuadro eléctrico adosado al Pasealeku tiene gran impacto visual y afea mucho la fachada del mismo. Se propone retirarlo de la fachada y ponerlo en un sitio que no impacte tanto.

HERRI-OLA GOGOETA PROZESUA

DUELA URTEBETE ABIATUTAKO GOGOETA PROZESUA AZKEN URRATSETAN AURKITZEN DA. GOGORATU DEZAGUN ZEIN HELBURU EGOTZI ZITZAIZKION GOGOETA PROZESU HONI: OTXANDIOREN GARAPENAREN OINARRI ETA IPARRAK HERRITARRON ARTEAN, ERA PARTEKATUAN, EZTABAIDATU ETA ADOSTEA. ARGIPEN LAN BAT EGITEA AZKEN FINEAN. ARLO BAKOITZARI DAGOKION DIAGNOSTIKOTIK ABIATUZ NON AURKITZEN GAREN ETA ERRONKAK ZEINTZUK DIREN HAUSNARTZEA.

“
Gogoeta prozesu honen helburua: Otxandioaren garapenaren oinarri eta iparrak herritarron artean, era partekatuan, eztabaidatu eta adostea.

proiektua bere bidea egiten hasi da eskolan...

Bestalde, lau foro antolatu dira, Herri-olaren lau oinarriei buruzkoak: parte-hartzea, elkartasuna, iraunkortasuna eta euskalduntasuna. Hauetan, herritarrez gain unibertsitateko irakasle eta ikerlariak ere izan ditugu solaskide. Forootan garapen eredu jasangarri eta humano baterako oinarriak proposatu dira. Foro hauek grabatuta daude eta herritarren eskura jarriko dira datozen hilabeteetan.

Gogoeta prozesuari itxiera emateko azken bi saio proposatuko dira urte berriarekin batera. Aurrena herriko garapen sozioekonomikoari buruzkoa: zein aukera ditu Otxandiok enplegua sortu eta dagoena mantentzeko? Zein baliabide behar ditugu horretarako? Nolakoa behar du gure ingurune naturalarekiko harremanak jarduera horretan? Eta azkenik, zapatu goiz bateko dinamika parte-hartzailearekin, gogoeta prozesuaren itxiera saioan, datozen urteetan Otxandion estrategikoak diren zein proiektu garatuko ditugun adosten saiatzeko proposamena luzatuko da.

Gogoeta prozesuaren itxierarekin herri proiektu baten oinarriak, iparrak



Prozesu emankorra izan da oso, herritar ugariren ikuspuntuak jaso ditu eta baita gaian aditua den ikertzaile, irakasle, etb.-ena. Gainera, beste herri batzuetako esperientzia interesgarriak ezagutzeko aukera ere izan dugu. Elikadura burujabetzari buruzko saioan Jakoba Errekondo izan genuen Mekolako Arkotxe elkartean Zeraingo esperientziaren berri emanez. Debagoieneko Bagara egitasmoa eta Sakanako Sakantzen bertatik bertara ezagutzeko aukera ere izan dugu.

Alde batetik, kafe-tertulien dinamika bidez Otxandioaren garapenean

eragiten duten arlo desberdinen iparrak eztabaidatu dira (ura, energia, euskalgintza, elikadura burujabetza, kirola, hezkuntza, kultura, nagusien bizitza kalitatea etb.). Deialdi zabalek izan dute erantzuna, 70 herritar baino gehiagok hartu dute parte kafe-tertulia saio desberdinetan. Gogoeta hauek bidea egiten hasi diren proiektu zehatz batzuk martxan jartzeko hazia erein dute. Elikagai ekologikoak erosten dituen kontsumo talde bat martxan dago, etxeetako efizientzia energetikoa zelan hobetu aztertu duen lan taldea osatu dute herritar batzuk eta egindako lanaren emaitzak herriari jakinarazi, ikas-komunitatea



Deialdi zabalek izan dute erantzuna, 70 herritar baino gehiagok hartu dute parte kafe-tertulia saio desberdinetan.

eta baliabideak prest izango dira. Zertarako? Komunitate gisa antolatu eta ari zeko, demokrazian sakontzeko, gure herria bederatziz zinegotziren artean baino komunitate ikuspegiarekin gobernatzeko, ipar adostuekin herrigintzan sakontzeko, eta finean XXI. mendeko erronkei ahalik eta modu eraginkorrean aurre egiteko.

Otxandio herri bizia da, herrigintzan ibilbide oparoa duena. Azken hamarraldian kultur ekintza harrigarriak burutu dira: Soinubilek egindako lana, dantza taldeak antolatutako ekintza parte-hartzaileak, memoria historikoa berreskuratze egindako lana, toponimia jasotzeko lana, Otxandioko olgetak jasotzeko lana, jai batzordeak egindakoa, etabar luze-luze bat. Hortaz gain, herriko talde sozial desberdinek jarduera eta ekintza ugari antolatzen dituzte etengabe herria bizi-bizi mantenduz. Komunitate ehundura sendoak ditugu erronka berriei aurre egiteko.



Bestalde, lau foro antolatu dira, Herri-olaren lau oinarriei buruzkoak: parte-hartzea, elkartasuna, iraunkortasuna eta euskalduntasuna.

Proceso participativo Herri-ola

El proceso de reflexión participativo en el marco del proyecto Herri-Ola iniciado hace un año está llegando a su fin. Dicho proceso tiene como objetivo definir entre los vecinos de la localidad, de forma participativa y por consenso, las bases y la dirección que debe tomar el desarrollo de Otxandio. De esta manera, partiendo del diagnóstico de cada materia analizada, se pretende conocer en qué punto estamos en Otxandio y reflexionar sobre las necesidades y los retos fijados.

Tanto para sus promotores, así como para todos aquellos que han participado ha sido un proceso muy enriquecedor, se han recogido las opiniones de muchos vecinos, así como de investigadores, docentes... y se han podido conocer de primera mano experiencias desarrolladas en otras localidades y comarcas (Zerain, Bagara, Sakantzen...). Para ello, se han realizado numerosas cafés-tertulias y foros sobre temáticas concretas tales como participación, solidaridad, sostenibilidad y euskaldunización, entre otras muchas. Estos foros han sido grabados y se pondrán pronto a disposición de todos los otxandioarras.

Posteriormente, para dar fin a este proceso de reflexión participativo, están previstas dos jornadas para 2014. Una sobre desarrollo socio-económico; y otra donde se debatirá sobre los proyectos estratégicos que deberían llevarse a cabo en Otxandio durante los próximos años.

ura

**ARAZTEGI
EREDU BERRIA**

Estolderia sare zaharraren eta eremu inundagarrian aurkitzen den araztegiaren egoerarekin kezkatuta, arazoari irtenbidea eman eta uraren ziklo osoa kontuan duen aurreproiektua landua du Udalak. Hots, herrian beharrezkoa den arazketa eredutik haratago, gure herrian ura hartzen den momentutik berriro errekaratu bueltatu arteko zikloa jasotzen duen aurreproiektua idatzia dago.

Arazoari konponbidea emate aldera, azken hilabeteotan, inbertsioa egitea dagokien URA ur-agentziarekin, BFAko Ingurumen Azpiegituren Zuzendaritzarekin eta BFAko Biodibertsitate Sailarekin bilera ezberdinak burutu dira. Horrez gain, aurreproiektuan jasotzen diren konponbide tekniko berdinak dituzten Kataluniako araztegi ezberdinak bisitatu dira, eta Otxandioko herriak ur-azpiegiturak amortizatzeko duen gaitasunari zein proposatzen den konponbideak biodibertsitate arlotik izan dezakeen eraginarri buruzko ikerlanak burutu dira.

Bilera eta lan hauen berri negu aldera deituko den Herritarron Kontseilu informatiboan emango da.

Tratamiento del agua

El Ayuntamiento ha elaborado un anteproyecto para dar solución a la antigua red de alcantarillado y a la depuradora existente. El ente municipal se ha reunido con la agencia URA, con la Dirección de Infraestructuras de la Diputación Foral de Bizkaia y con el Departamento de Biodiversidad de la misma Diputación, además de visitar diversas depuradoras en Cataluña. También ha realizado varios estudios para analizar la capacidad de amortizar infraestructuras relacionadas con el agua que tiene Otxandio.

oreka

energia

oreka

energia

BIOGAS AUKEREN AZTERKETA

ERAIKINEN ERAGINKORTASUN AZTERKETA

Norberaren etxeko berokuntzak suposatzen dituen fakturen neurriekin kezkatuta, eta arazoari konponbidea aurkitu nahian etxean egin beharreko aldaketak aztertzeko, herritar talde bat elkartu da azken hilabeteotan Otxandion.

Batutako herritar horien guztien beharrezko ezberdinak kontuan izango lituzkeen azterketaren nondik norakoak zehaztuta, herritar talde hori arloko enpresa batzuegana zuzendu da aurrekontu eske. Hainbat eskaintza aztertu eta gero, eraikinen eraginkortasun energetikoaren azterketa doan egingo duen enpresaren eskaintza lehenestea erabaki da.

Burututako lan guztia partekatu eta azterketa horretan gainontzeko herritarrei parte hartzeko aukera emateko asmoaz, hirurogei lagunetik gora bildu zituen batzar zabal bat antolatu zen azaro bukaeran. Dagoeneko, dozenaka dira azterketan parte hartuko duten herritarrik.

Behin azterketak egin eta gero, haue-tan proposatutako konponbideak elkarrekin trukatzeko eta bakoitzak bere etxean egindako lanek izandako emaitzak besteei jakinarazteko dinamika bat proposatuko du herritarrez osatutako lan talde honek. Horrela, bataren esperientziatik beste guztiek ikasi ahal izateko eta denon artean konponbide desberdinen emaitzak zabaltzeko.

Lan honi jarraipena emateko, azken aldian Otxandioko etxeetan jartzen ari diren egurrezko berokuntza sistema desberdinen gaineko azterlana egitea aurreikusten du herritar talde honek.

2011. urtean Biometanizazio Plan-ta bat eraikitzeko aurreikerketa egin zenetik, Otxandioko Udalak eragile desberdinei aurkeztu die azterketa, hauen artean EEE/EVE (Eusko Jaurlaritzako Ente Vasco de la Energía enpresa publikoa) erakundeari. Erakunde honek begi onez ikusi zituen aurreproiektuak zabaltzen zituen bideak eta Udalarekin elkarlanean aritzeko borondatea erakutsi zuen. Aukera honetan sakontzeko bideragarritasun azterketa egiteko bidea abiatu genuen EEE/EVE erakundeak, Otxandioko Udalak eta biometanizazio gaietan espezializatua dagoen Onitek enpresak.

Bideragarritasun azterketan abiatuaz batera, 2011. urteko aurre-diagnosian detektatutako baldintza garrantzitsu bat bertan behera gelditu izanarekin egin zen topo. Hau da, energia iturri berriztagarrietatik lortutako argi-indarra sarean saltzerakoan zegoen “prima” desagertuta zegoen. Honen desagertzea aurreko bideragarritasun aukerak bertan behera utzi eta bide berriak aztertzeari ekin zitzaion.

Horrela, bideetako bat biogasa zuzenean etxeetako galdaretan erretzeko modura jartzeko aukera lantzea zela ikusi zen. Baina aukera honek lortutako biogasaren purifikatze prozesu bat eskatzen du eta duela gutxi arte prozesu hau egiteko zeuden aukerak azpiegitura oso astunak eskatzen zituzten. Azken urteetan Herbeheretan prozesu hau burutzeko teknologia asko gartu dute eta gaur egun oso konpaktuak den instalazio batean egin daiteke. Hain zuzen ere, Amsterdam inguruko horrelako instalazio bat ikustera egin zuen bisita Otxandioko Udaleko ordezkariak, EEE/EVE eta Onitekekin batera, beharrezko azpiegitura ikusi eta herrian horrelako batek suposatuko lu-keena zuzenean ikusteko.

Otxandioko Udalak udazken honetan azterketa horren emaitzak esku artean izatea espero bazuen ere, le-rrero hauek idazteko garaian oraindik Otxandioko Udalarik ez zaizkio emaitza horiek ailegatu. Hauek eduki bezain pronto, herritarrekin berau partekatu eta iritzi trukaketarako beharrezko bi-deak jarriko dira abian.

Estudios de eficiencia energética y biometanización

Durante los últimos meses un grupo de vecinos de Otxandio se ha estado reuniendo con asiduidad preocupados por el alto coste de las facturas derivadas del calentamiento de los hogares. Este grupo se ha reunido con diversas empresas del sector de la eficiencia energética en la construcción para pedirles presupuestos y finalmente ha elegido una de ellas que se ha ofrecido para hacer un estudio sobre eficiencia energética sin coste alguno. Posteriormente y con el fin de compartir

los avances realizados, convocaron una reunión abierta a la que asistieron 60 personas, y ello ha propiciado que más vecinos se hayan sumado a la iniciativa.

Por otra parte, el Ayuntamiento sigue poniendo pilares al proyecto de construcción de una planta de biometanización en la localidad. De esta forma, representantes municipales se reunieron con el Ente Vasco de Energía (EVE), perteneciente al Gobierno Vasco, quien ha visto con buenos ojos el proyecto. Y de hecho, representantes de ambas instituciones viajaron hasta Holanda para conocer el funcionamiento de una planta de biometanización.

HIRIGINTZA

»ANTERAPALUZETA

Ur-presio baxuari konponbidea

Anterapaluzeta inguruko etxeetako ur-presio baxuari konponbidea emango zaio hurrengo asteetan.



Urteak dira Otxandioko auzo ezberdinen beharrianak ezagutzeko Hirigintza Batzordeak deitzen dituen auzo-batzarretan, Anteparaluzeta inguruko bizilagunek beraien etxeetako ur-presio baxuaz kezka adierazi zutela.

Mariantarrena, Margaola, Itzaga eta Anterapaluzetako etxeetako ur-iturrietatik datorren urak presio oso baxua dakarrela, eta honek behin baino gehiagotan arazoak sortu dituela aipatu izan dute bertako bizilagunek azken urteetan antolatuta auzo-batzar ezberdinetan.

Ordutik egindako ikerlan ezberdinek, ura Anteparaluzeta auzora behar den presioaz ailegatzeko, Mainondoko depositutik behera urak hartzen duen indarra edota abiadura nahikoa ez dela erakutsi dute.

Inguru horretako etxeek duten presio arazo horri konponbidea emate aldera, hurrengo asteetan, Mainondoko depositutik datorren edateko uraren hodian ur-ponpa bat jartzeko lanak hasiko dira. Lan horiek Morgaolan inguruan egingo dira. Bertan, ur-edangarriaren hodiari ura pilotzea helburu duen kolektore bat jartzea eta urari aupada ematea helburu duen ur-ponpa kokatzea aurreikusten da. 14.000€ inguruko kostua izango duten lan horiekin, Anterapaluzeta inguruko herritarren etxeetako arazoari irtenbidea ematea espero du udalak.

»UR AZPIEGITURAK

Ur-edangarriaren hodia berriztu da



Otxandioko herriari ur-edangarria bermatzen dion hodia berriztu da azken hilabeteotan. Konkretuki, Oletatik Mainondoko deposituraino doan eta bi kilometro eskaseko luzera duen ur-edangarriaren hodia aldatu da.

50eko hamarkadako zen hodi horrek arazo ugari eman izan ditu azken urteetan. Besteak beste, iaz lau aldiz apurtu zen. Horrelako ezusteek, bereziki lehorrak diren garaietan, ur hornikuntza ere arriskuan jar dezakete. Hodi berriari beste ibilbide bat eman nahi izan zaio, edozein arazoren aurrean erraztasun handiagoz iristeko. Lan hauen kostua 40.000 € ingurukoa izan da.

Bestalde, aipatu, Mainondoko ur-depositu txikiak zituen ur-galerak ere konpondu direla. Konponketa honetan beste 12.000 € inguru erabili dira.

»MANTENU LANAK

Herriko hainbat txoko berriztu dira



Bizi dugun testuinguru ekonomikoa medio, azken hilabeteotan hirigintza lan txikiak edo unean uneko konponketak egitera mugatu da Hirigintza Batzordea. Hondatutako zintarri, kale eta markesinak konpontzeaz gain, igerilekueetatik hasi eta Mainondoko frontoiraino doan errepidean galipota bota eta aparkaleku berriak sortu dira, herriko argiteria publikoaren zein eraikin publiko batzuen argindar instalazioen inspezio teknikoa burutu eta bertan jasotako hutsuneak zuzendu dira, eta Mainondoko areazko futbol zelaian beharrezkoak ziren konponketa lanak egin dira.

OGASUNA

»AURREKONTUAK


Hurrengo asteetan 2014. urteko Udal aurrekontuak onartuko dira

2014. urterako aurrekontuek, aurreko urtekoarekin alderatuz, egoera hobeko batean kokatzen dute Otxandioko Udala. Alde batetik, ohiko sarreraren igoera aurreikusten delako; eta bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiari (BFA) itzuli beharreko diru guztia iaz itzulita dagoelako.

Aurrez aipatu bezala, ohiko sarreraren atalak, herriko zerga bilketatik eta beste erakundetatik urtero jasotzen diren diru sarreraren atalak, iazkoarekin alderatuta %6,7 gora egitea espero da. Konkretuki, 1.435.000€ inguruko diru sarrerak aurreikusten ditu Ogasun Batzordeak hurrengo urterako. Ohiko diru sarrera horren %88arekin kale zein eraikin publikoen mantenuari (Kultur Etxea, Igerilekua, Udaletxea...), orain eskaintzen diren zerbitzu ezberdinei (ludoteka, zaborra...), kultur zein kirol taldeen dirulaguntzei (Vulcano, Urduri, Arkotxe, Mirugain...), udal langile zein batzordeen gastuei eta jaietako aurrekontuei aurre egingo zaie. Horrez gain, ohiko kontuetan jasoko den berrikuntza nagusia, garapen teknikari baten zerbitzuen jornada erdiko kontratazioa izango da. Garai ekonomiko zail hauetan, aurrera urratsa egin, eta Otxandiok dituen baliabide zein aukerak aztertu eta herrian sor daitezkeen ekimen sozioekonomikoak sustatzeko ahalegina egingo da garapen teknikari honen bitartez. Ohiko sarreraren gainontzeko %12a (167.075 €), berriz, ezohiko gastuetarako eta inbertsioak egiteko erabiliko da.

Hasteko eta behin, inbertsiotarako gelditzen den diru kopuru horrekin Udalak dituen bi kredituri aurre egin beharoko die. Lehena, Zerrabiden Udalak dituen bi partzelen hipotekari dagokio. Hauen salmenta oraindik gauzatu ez denez hauen kontra dagoen hipotekari aurre egiten jarraitu beharoko da eta aurten 34.000 €tako ahalegina eskatuko du. Bigarrena Erralde hiltegiaren likidazio prozesuaren ondorioz dator. Bere sasoiaren Erraldek hiltegi berria egiteko lurra erosi zituen Berrizen eta hiltegi berriaren proiektua idatzi zuen. Honetarako 2 milioi euro inguruko kreditu bat hartu zen eta orain kreditu hau Udaletara aldatu da. Gaur egun, Otxandioko Udalak Erralden duen

2014 OHIKO KONTUAK




%6ko partzipazioaren arabera 123.000 €tako kreditua bere gain hartu behar du eta honek urtean 15.000 €tako kuota suposatuko ditu.

Behin horiek guztiak kontuan izanda, gelditzen denarekin eta Eusko Jaurlaritzaren zein BFAaren diru laguntzak lortzen badira, bi inbertsio nagusi planteatzen dira 2014rako:

Plaza Nagusiaren eraberritzea: Asmoa eraberritze proiektu osoari dagokion 1. fasea (Vulkano ingurua eta zuhaitz eta jarleku bitartea) gauzatzea da, 587.000 euroko kostua duena. 1. fase hau 3 urtean zehar (2013, 2014 eta 2015) gauzatzekoa da: 2013an exekuzio proiektuaren idazketa eta 2014-2015 bitartean lan gauzatzekoa. 2014an 200.000 euroko inbertsioa aurreikusten da eta hauetatik 150.000 € diru laguntzetatik jasotzea espero da.

Eskola eta frontoirako biomasa galdara: Bai eskola zein frontoia berotzen dituzten gasoliozko galdarak dagoeneko zaharritua daude. Bi hauen ordeztu biomasa, hau da egurra, erabiliko duen berri bat jarri eta frontoia eta eskola galdara berdinarekin berotzea da asmoa. Galdara hau egiteko 200.000 euroko inbertsioa aurreikusten da eta hauetatik %75a Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean, BFAren eta EVeren eskatutako laguntzetatik jasotzea da helburua.



Presupuestos 2014

Los presupuestos municipales de 2014 sitúan al Ayuntamiento de Otxandio en mejor posición que el año anterior, ya que se prevé una subida de los ingresos y por otra parte se ha devuelto la totalidad de la cantidad devengada a la Diputación Foral de Bizkaia.

Las estimaciones apuntan a una subida de ingresos de un 6,7% respecto al año anterior. El 88% de ese montante estará destinado al mantenimiento de varios edificios públicos (casa de cultura, piscina, Ayuntamiento...), a diversos servicios (ludoteca, basuras...), subvenciones a asociaciones culturales y deportivas, gastos de personal y fiestas. Además, la principal novedad será la contratación de un técnico de desarrollo local a media jornada.

El 12% restante irá dirigido a gastos extraordinarios e inversiones. Parte de la partida de inversiones se destinará al pago de dos créditos; la hipoteca de las dos parcelas de Zerrabide y la derivada del proceso de liquidación del matadero. Asimismo, se renovará la Plaza y se instalará una caldera de biomasa que dará servicio tanto al frontón como a la escuela.

OGASUNA

»ORDENANTZA FISKALAK

Azaroan egindako Udalbatzan 2014. urterako ordenantza fiskalak onartu ziren.

Ordenantza hauetan 2014. urtean Otxandion izango ditugun zerga, tasa eta prezio publikoak arautzen dira eta hauei 2013an izandako KPIaren (Kontsumo Prezioen Indizea) igoera aplikatzea onartu zen, hau da, %2ko igoera orokorra aplikatuko zaie, salbuespen batzuekin. Salbuespenen artean igoerarik izango ez dituztenak eta KPIa baino gehiago igoko direnak daude.

Igoerarik izango ez dutenen artean hauek daude:

- IBI moduan ezagutzen dugun Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga, hau da, gure etxeak eta eraikinak jabetzan izateagatik ordaintzen dugun zerga. Hau %0.80an dago eta gure jabetza hiigezinen balioari aplikatzen zaio. Gure herriko jabetzen balioak (katastro balioak) azken 40 urtetan ez direnez eguneratu, eraikin berriek eta zaharrek proportzioan ordaintzen dutena desorekatua dago. Katastro balioen eguneratzea BFAren ardura da eta azken urteetan egingo duela agindu arren badirudi legealdi honetan ere ez dela gauzatuko. Balio hauek eguneratu arte zerga dagoen horretan mantentzea ikusten da egokiena.
- ICIO moduan ezagutzen dugun eraikuntza, instalazio eta lanen gaineko zerga. Hau %5ean gelditzen da. Zerga honetan hobari edo deskontu desberdinak eskatze-ko aukera dute herritarrek: herriarentzako onurakoak edo interes berezikoak izendatutakoak %95eko hobaria eskatu dezakete, energia eraginkortasuna hobetzera zuzendutakoak %75ekoa, lanpostu egonkorak sortzen diren inbertsio pribatuak ezartzeko %75ekoa, oztopo arkitektonikoak kendu eta irisgarritasuna hobetzeko lanek %75ekoa, babes ofizialeko etxeak eraikitzeko %50ekoa, etxebizitza sozialak eraikitzeko %75ekoa eta gaixotasun larrien beharrianak asetzeko lanek %95ekoa.
- Hiri-lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga, gure etxe, lur edo bestelako ondasun higiezin saltzerakoan, eskuz aldatzerakoan eta abar aplikatzen dena, 2005ean ezarritako formula baten bitartez kalkulatu da. Eta honetarako herriko zonaldea, jabetzaren antzintasuna eta horrelako beste datu batzuk gurutzatzen dira.
- Zabor bilketagatiko tasa. Aurreko urteko prezioan uztea erabaki zen, zerbitzu hau eskaintzeko Zuiako Koadrilako beste herri batzuekin batera osatzen dugun Gorbeia Inguruko Partzuergoan. 2009an gure zaborrak eramaten ditugun zabortegia (Gardelegi) itxiko zutela eta berri batera (Jundiz-mendebaldea) eramaten hasi behar ginela jakinarazi zitzaigun. Zabortegi berri honetan ordaindu beharreko tasa altuagoa zela ikusita, gutxika gure herrietako tasak horretarako egokitzen hasi ginen partzuergoko kideok, baina aldaketa hau oraindik ez dela gauzatu ikusita eta partzuergoaren kontuek urtearen erdian eman daitekeen igoerari

aurre egiteko baldintzetan daudenez, tasa hauek aurreko urteko baloreetan uztea erabaki da.

- Udal agiri desberdinak luzatzeagatik ezarritako tasak.
- Frontoiarenean erabileragatik ezarritako prezio publikoa.

Igoera izango dutenak:

- Ur edangarriaren hornikuntzagatik eta estolda zerbitzuagatik ezartzen den tasari %8ko igoera egingo zaio. Europar Batasunetik datorren zuzentarauaren arabera uraren zikloa kudeatzen duten eragileek, hau da Otxandionko Udalaren kasua, zerbitzu honetan duten kostuaren zatirik ahalik eta handiena tasen bitartez berreskuratu behar dute. Gure herrialdean, Bizkaian, herri gehienek duten tasen inguruan mantentzea izan da udal honen helburua azken urteotan, urte batetik bestera Europako zuzentarauaren aplikaziotik etor daitekeen tasa honen bat-bateko igoera saihestu eta hau gutxika egiten joateko asmoarekin. Aurten Bizkaiko herri gehienak barne hartzen dituen Bilbo-Bizkaia Ur partzuergoak %8ko igoera egingo du eta hortaz Otxandion berdin egitea erabaki du Udalak, aurretik aipatutako moduan beste herri gehienekin parean mantentzeko. Igoera honek, gutxieneko kontsumoa duen etxebizitza baten kasuan urte osoko ur edangarriaren fakturan 4 euroko igoera ekarriko du eta estolderiarenean beste 4 eurokoa. Hortaz, uraren ziklo osoan urtean 8 euroko igoera izango du.



ZERBITZUAK

»KIROLA

Igerilekua

2014. urteko udaberrian igerilekuen kudeaketaren esleipena lehiaketa publikora aterako du Udalak. Hiru urterako esleipena da, urtez urte berrizten dena kontrako iritzirik ez bada. Azken hiru urteetan Aiteko S.L. enpresak kudeatu ditu igerilekuak. Udaberrian pleguak publiko egin eta lehiaketa zabalduko da datozen hiru urteetarako igerilekuen kudeaketa esleitzeko.

Udalaren ustez aukera ona da herritarrentzat, beti ere zerbitzu profesionala ematea bermatzen duten proposamenak izan behar direla argi utziz. Beraz, Udalak deia luzatzen die esleipen honetan interesa izan dezaketen herritarrei lehenbailehen udaletxera jo eta baldintzei buruzko informazioa eskatu dezaten.




»ORDENANTZA

Hileta zibilak

Udalak hileta zibilak antolatzeko ordenantza onartuko du datozen asteetan. Estatu akonfesional eta laiko baten erakundeek pertsonen eta komunitateen askatasun ideologikoa, erlijiosoa eta gurtzekoa bermatu behar dute. Hori da hain zuzen ordenantza honek bilatzen duena hiletei dagokienez. Ezaguna da zelako aniztasun ideologiko, erlijiosoa eta kulturala daukan gure jendarteak. Hain zuzen ere, jendartea plurala da eta eten gabe eraldatzen dabil bere ohitura eta ekitaldi sozialei dagokienez.

Ordenantza honek hileta zibilak egiteko prozedura arautuko du. Besteak beste, zeregin honetarako zein espazio publiko eskainiko diren definituko du eta ospakizun hauek antolatzeko Udalak zein ekipamendu jarriko dituen herritarren zerbitzura.

Behin Udalean onartuta, Bizkaiako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da indarrean jarri aurretik. Momentu hau iristean herritarrei jakinaraziko zaie.

**Txakurren kakak**

Aspaldidanik arazo izan dira txakurren kakak Otxandioko kale, plaza zein kantoietan. Hala ere, azken aldian, eskola inguru eta haurren jolas guneetan bereziki, txakurren kakak gero eta gehiago ikusten direlako hainbat kexa jaso ditu Udalak.

Zerbitzu batzordeak arreta berezia eskaini dio azken hilabeteetan txakurren kakek sortzen duten arazo honi. Hori horrela, Guzurmaiko aldizkariak eskaintzen dituen lerro hauetatik, txakurren jabe den herritar orori, dei berezi bat egiten zaio bere animaliaren kakak batu ditzan. Otxandio garbi mantentzeko lehenengo neurria, guk herritarrok, lurrera ezer ez botatzean oinarritzen delako. Herria garbi mantentzea denon zeregina delako.



GIZA ESKUBIDEAK

»HERRIRA ETORRI BERRIAK

Baliabide gida

Otxandiora etorri berriak zirenen beharizanen inguruan hausnartzean, Inmigratio batzordea herriko zerbitzuak jasotzen dituen tresna baten faltaz konturatu zen. Hori dela eta, herriko zerbitzuak, ohiturak... barnebiltzen dituen Baliabide Gida bat argitaratzea erabaki zen.

Horretan lanean hasi eta forma hartzen hasi zuen heinean, bertan biltzen zen informazioa Otxandiora etorri berria denarentzat zein bertakoarentzat baliagarria dela ikusi da. Gida honek jasotzen duen informazioaren artean osasun zerbitzuak, hezkuntza, garraio publikoa, eragile kulturalen zerrenda, gizarte zerbitzuak... aurkitzen dira.

Otxandion dagoen aniztasuna aintzat hartuta, hizkuntza desberdinetan argitaratuko da, asmoa Otxandiok eskaintzen duena konpartitzea delako. Baliabide Gida euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, arabieraz, portugesez, eta ingelesez argitaratuko da.

Datorren urteko lehen hiruhilekoan publikatzea aurreikusten da, orduan herritar guztiek beraien etxeetan jasoko dute eta udaletxean ere eskuragarri egongo da.



»EMAKUMEA

Autodefentsa ikastaroa martxan

Abendua eta urtarrila bitartean, Autodefentsa Feminista ikastaroa egingo da Otxandion. Baina, zer da Autodefentsa Feminista? Askok defentsa pertsonalarekin nahasten dute, eta Autodefentsa ikastaroa babes fisikotik haratago doan kontzeptua da; indarkeriaren erroetara jo eta beraiekin amaitzeko beharrezkoak diren jokabide, jarrera eta tresna multzoa litzateke. Ikastaroaren helburu nagusia emakumeen kontzientzia modu aktibo batean lantzea da, hau da, nor bere esperientziatik hasita egoerari buelta emateko tresnak eta baliabideak eskainiz.

Laburbilduz, ikastaroaren funtsa jarrera matxistak detektatu eta hauei aurre egiteko baliabideak eskaintzea da. Modu dinamikoan planteatzen den ikastaroa da, eztabaida eta parte hartzaileen elkarrekintzan oinarrituz. Ikastaroari abenduaren 14ean eman zitzaion hasiera, hiru orduko lau saiotan banatuta.

»HERRIKO PRESOEN EGOERA

Iñakik, Ramonek eta Enrikek, Otxandiotik ehunka kilometrotara kokaturik dauden espetxeetan jarraitzen dute dispertsaturik. Beraien egoera ez da batere erraza, alde batetik kartzelararuta egote hutsa gogorra delako, eta beste aldetik euskal presoak izanik beraien bizi baldintzak gehiago gogortzen dizkielako. Baina dispertsaturik dauden heinean Otxandioko senide nahiz lagunek ere pairatu behar dituzte dispertsioak dakartzen ondorioak, beraien artean latzena, "Anselmo"ren heriotza. Orain arte 16 senide eta lagun hil dira errepideetan, eta datu bezala esan genezake aurten bakarrik 6 istripu suertatu direla.

Presoek kondena beraien etxeetatik hurbilen dauden espetxeetan betetzeko eskubidea dutelako eta eskubide urraketa horrek senide eta lagunengan duen eragin latzagatik udaletxeko giza eskubideen batzordetik lanean gabilta bereziki dispertsioa salatzen ahalik eta arinen Otxandioko presoak Euskal Herrira buelta daitezten.

Salaketa lan honetan Otxandiar guztiak gonbidatzen zaituztegu bakoitzak ahal duen neurrian bere ekarpena egiteko, eta nola ez, komisio hontatik urtero lez Abenduak 31-an antolatuko dugun Otxandioko presoaren eskubideen aldeko kontzentrazioan parte hartzera.

Ramon Aldasoro Magunazelaia
Centro Penitenciario Castellón – II
Pasaje Mascarrell, acceso
CV -129Km.5
12140 Albocasser (Castellón)

Iñaki Garces Beitia
Centro Penitenciario de Zuera
Carretera Nacional 333, km 539
50298 Zuera (Zaragoza)

Enrike Garate Galarza
Maison Centrale Pissy
17, Rue de l'Abbaye
78303 Poissy Cédex (Francia)

EUSKARA

»»UEMA-REN KANPAINA

Euskal abizena modu ofizialean eta euskaraz idatzita izan nahi?

Arteche, Aguirre, Goicoechea, Echenique, Echeverria... Zure abizena horietako bat da? Zenbat aldiz pentsatu duzu abizena euskaratu beharko zenukeela?

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) abian jarri du abizenak euskalduntzeko kanpaina, 'Guk abizena, zuk?' leloarekin, eta dei egiten die euskaldunei bere izanarekin koherente izateko eta abizenak euskalduntzeko.

Izen-abizenak euskalduntzea oso erraza da:

1. Erregistro zibilera edo bake epaitegira joan eta esan abizena euskal grafiaz ipini nahi duzula.
2. Han emango dizuten eskaera orria zure datuekin bete.
3. Agiri hauek eraman:
 - Nortasun agiriaren fotokopia. Adinez nagusia ez bazara, gurasoena ere beharko duzu.
 - Hitzez hitzeko jaiotza ziurtagiria. Epaitegian eskatzen da.
 - Errolda agiria. Udaletxean eskatzen da, eta, adinez nagusia ez bazara gurasoena ere beharko duzu.
 - Familia liburuaren fotokopia. Ezkonduta bazaude edo seme-alabarik baduzu.
 - Seme-alaben nortasun agiriaren fotokopia. 16 urtetik gorako seme-alabak badituzu.

Guk abizena, zuk? Erdarazko grafia duen abizenari eutsiko diozu?

Zure izena eta abizena euskaraz nola idatzi behar den jakiteko: www.euskaltzaindia.net



»»KALE NEURKERTA

Zenbat euskara erabiltzen da Otxandixon kalien?

2006an egin ziren euskeraren azken kale-erabilera neurketak herrian eta aurtan berriro ere egitea interesgarritzat jo zen Euskara Batzordean. Euskal Herriko kale-erabileraren neurketak Soziolinguistika Klusterrak egiten dituzenez, eurekin egin dira Otxandixon ere. Neurketak egiten bi otxandiotar ibili dira herriko kaleetan zehar bueltaka, entzuten zituzten elkarrizketak euskaraz ziren ala ez jasotzen.

Urriko hiru astetan egin dira neurketak, asteko lau momentu ezberdinetan, martitzen arratsalde, eguen arratsalde, zapatu goiz eta zapatu arratsaldeetan entzundako elkarrizketak neurtuz. Guztira 670 elkarrizketa jaso dira eta Soziolinguistika Klusterraren arabera emaitzek +- %3,8ko akats tartea dute. Hau da, emaitzak oso fidagarriak izango direla alegia.

Eta zeintzuk izan dira ba emaitzak? Ba pazientzia apur bat eduki beharko dugu, Soziolinguista Klusterraren eskutan daudelako ondino neurketok, baina urte amaierarako izango ditugu emaitzak eta emango da honen barri.

Eta zuk zer uste duzu, zenbat euskara erabiltzen dela Otxandioko kaleetan? Bota, bota portzentaje bat! Ia zein hurbiltzen den gehiago.

»»UEMA-REN DIAGNOSTIKOA

Otxandioko Udalak pausu gehiago eman behar ditu euskararen arloan

Udan UEMA osatzen duten udal guztietan diagnostikoa egin zuen. Otxandion ere gaur egungo euskararen egoeraren neurketa egin zen.

Udalaren argazkitik abiatuta, lau izan daitezke udalaren egoera definitzeko jarri diren mailak: abian, magalean, gora bidean eta tontorrean.

- Tontorrean: Oro har, euskaraz funtzionatzen duten udalak.
- Gorabidean: nagusiki euskaraz eta ele bietan (euskarari lehentasuna emanda) funtzionatzen duten udalak.
- Magalean: nagusiki, ele bietan modu orekatuan funtzionatu arren, tartean gaztelania hutsean ere funtzionatzen duten udalak.
- Abian: ele bietara funtzionatzera bidean, oraindik urrats handia egiteko duten udalak. Gaztelaniak presentzia nabarmena du.

Otxandioko udala Magalean eta Gorabidean artean kokatu da.

Diagnostiko honetan oinarrituta hurrengo 4 urteetarako helburu zehatzak markatuko dira orain.

KULTURA

»KULTUR JARDUERAK

Margo lehiaketa bertan behera

Herritarren parte-hartze minimoa ematen ez dela iritzita, margo lehiaketa bertan behera utzi eta diru hori beste kultur ekimen batean inbertitzea erabaki da.

Kultura Batzordeak, herritarrekin batera, urtero ospatzen den Margo Lehiaketaren gainean hausnarketa prozesu bat abiatu du. Ekimen honen alderdi positibo zein negatiboak aztertu, eta Margo Lehiaketaren etorkizunak zein izan behar duen erabakitze-ko, azken asteetan gaian interesa izan dezaketen herritarrekin hitz egin eta batzar irekiak antolatu dira.

Batzar horietan, besteak beste, udazken inguruan antolatzen den lehiaketa honetan, herritar oso gutxik parte hartzen dutela ikusi da. Ez hori bakarrik, azken bizpahiru urtetan joera horri buelta emateko antolatu diren pintura ikastaro guztiek ere, herritarrengandik ez dutela erantzunik jaso ikusi izan da. Horrez gain, horrenbeste urtez Margo lehiaketa antolatzearen ondorio, koadroak pilatzen hasi direla ere azpimarratu da. Jakina denez, koadro asko eta asko eraikin publikoetan jarrita badaude ere, beste asko udaleko ganbaran hautsa hartzen ari dira. Azkenik, arlo ekonomikoan, lehiaketa honek urtero-urtero 2.500 € inguruko kostua duela aztertu da. Bestera esanda, Kultura Batzordearen urteko aurrekontuaren %10 honetan inbertitzen dela aztertu da. Jarduera honetan ematen den herritarren parte-hartze baxua kontuan izanik, inbertsioa handiegia dela ondorioztatu da.

Hori guztia kontuan izanik, herritarrekin batera ospatutako batzarretan, Margo Lehiaketa gehiago ez antolatzea erabaki da. Aurrekontuaren zati hori herritarren parte-hartzea handiagoa izango lukeen kulturako beste edozein arlotan inbertitzeko asmoaz.

»IÑAKI PEREDA | HISTORIADOR Y ARQUEOLOGO

"La actividad ferrona prácticamente ha desaparecido de la memoria colectiva"

El Ayuntamiento de Otxandio y Eusko Ikaskuntza han firmado un convenio de colaboración cuyo objetivo es la realización de un trabajo de investigación sobre la actividad ferrona en Otxandio y que bajo el título *Otxandio-ko errementariak* está siendo acometido durante 2013-2014 por Iñaki Pereda, historiador y arqueólogo.

¿Cómo surgió la idea de realizar esta investigación?

El presente proyecto que aborda a los herreros de Otxandio es una vieja idea que se han planteado los propios otxandiotarras y que en los trabajos arqueológicos que he realizado en la villa he podido comprobar que es necesario abordar. Es una confluencia de necesidades, una para recuperar la memoria del pueblo de Otxandio y otra porque es necesario desde el punto de vista de la investigación histórica.

¿En qué se fundamenta o cuál es el objetivo de dicho proyecto?

Como ya he explicado anteriormente el objetivo es abordar una actividad tan unida a la historia de Otxandio como es la que realizaron sus herreros. Generar conocimiento histórico no solo desde la documentación o la bibliografía, sino también desde el estudio de la cultura material que ha generado o incluso de las tradiciones, canciones, palabras... Por este motivo el trabajo está organizado fundamentalmente en tres fases. La primera es más histórica, la segunda hace referencia a la cultura material y la tercera a la cultura inmaterial.

¿Cómo está resultando todo el proceso?

Está resultando complicado documentar los inicios de dicha actividad. La verdad es que está mejor documentada su época de apogeo y su desaparición. También sorprende que de una actividad tan enraizada con la historia de Otxandio, en la que llegaron a existir a finales del siglo XVIII en torno a unas 82 fraguas, sin embargo,



las huellas de esa historia en la memoria colectiva se hayan desmantelado tan rápidamente. A día de hoy tenemos importantes datos documentales que se conservan en los archivos, infinidad de nombres, topónimos, objetos y posibles espacios, pero somos incapaces de poder reconstruir toda la actividad productiva y la complejidad de las relaciones sociales y comerciales que esa actividad suponía.

¿Qué resultados esperas tener una vez finalizada la investigación?

Creo que el proyecto es muy ambicioso y no todas las preguntas van a quedar suficientemente respondidas, pero sí pienso que servirá para poner las bases para que nosotros u otros investigadores prosigan esta obligatoria tarea de revertir en la sociedad esa herencia patrimonial.

¿Cómo se puede implicar la ciudadanía de Otxandio en dicho proyecto?

La participación ciudadana en este proyecto va a ser determinante. En concreto, la reconstrucción de la cultura material e inmaterial de este antiguo oficio pasa obligatoriamente por la colaboración ciudadana de todos aquellos vecinos que posean objetos, datos, planos, nombres... Cualquier información es importante para llevar a cabo el trabajo. Cuando llegue esta fase se pretende que desde el Ayuntamiento se informe a todos los vecinos de Otxandio para que faciliten todos aquellos datos que serán convenientemente recogidos y documentados.

»BIZIKIDETZA ETA ELKARKIDETZA

Andikonako Foroaren lehen urratsak

Sentsibilitate politiko guztietako ordezkariak Andikonako Foroa osatu dute. Udalaren deiarri erantzunez, Frankismoa geroztik herriaren ordezkari izan diren hautetsi talde batek hartu du parte esperientzia honen lehen urratsetan.

Besteak beste, bizikidetza eta elkarkidetza oinarri sendoak jarri dira, eta horrekin batera, Euskal Herrian bizi dugun gatazka politikoaren irtenbide integralari buruz hitz egin eta hausnarketak konpartitzeko konpromisoa hartu da. Etorkizunean ere, Foro honek pausu berriak emango ditu etorkizuneko erronkei aurre egiteko asmoaz.

Andikonako Omenaldiko Adierazpena

2013ko Andikonako omenaldian, hautetsi izan diren lau lagunek, denen artean adostutako idazkia irakurri zuten. Herritarrei, adierazpen honi sinadura bidez atxikimendua adierazteko gonbidapena ere luzatu zitzaion. Adierazpen hori jasotzen duen liburua udaletxean dago nahi duen orok adierazpena sinatzeko aukera izan dezan.



»ARGENTINARA BIDAIA

Argentinako justiziak Udalaren delegazioa jaso du



Guda Zibilean zein Frankismo garaian izandako genozidio edota giza krimenak ikertzeko, 2010. urtean auzia ireki zuen Argentinako justiziak. Maria Servini epailea buru den auzi honen baitan Frankismo garaiko bi polizia inputatu eta Argentinara estraditatzeko eskaria ere egin du epaile berak. Horri guztiari jarraipena emateko auzi honetako salatzailleen plataforma, Eusko Legebiltzarreko giza eskubideen batzordeko ordezkarien (EAJ, EH Bildu eta PSE), Estatuko parlamentarien (Amaiur eta IU) eta Urduña eta Otxandioko udalen ordezkarien delegazioak jaso zituen Argentinako justiziak abenduaren 2an Buenos Airesen. Argentinako Senatuan zein Kongresuan ere harrerak izan dituzte epai honi buruz.

Otxandioko Alkateak Andikonako bonbardaketaren xehe-tasunen berri zuzenenean eman, honi buruz udalak egindako ikerlanak eta Andikonako adierazpena eman zizkion eskura Servini epaileari. Bestalde, epai bide honen garrantzia nabarmendu eta bukaera arte jarraitzeko eskatu zion.



Otxandioko
Udala

www.otxandio.net

facebook



Egin zaitez
udalaren lagun

bloga



Izan zaitez
atariko blogari

Astean asteko **albisteak**, udal batzordeen zein herriko taldeen **agenda**, momentuko **plenoetako aktak**, proposamenak egiteko atala, **iritziak** plazaratzeko **herritarren blogak**, udal zerbitzuen informazio osoa...